

#GazteSortzaileak
**GAZTE
SOR
TZAI
LEAK**
BEKA



2020ko deialdia

Gazteek gazteentzat sortutako ekitaldi kulturalak euskaraz

Creaciones culturales en euskera de jóvenes para jóvenes

NORENTZAT

- ▶ 16-35 urte bitarteko gazte arabarrak

SARIA

- ▶ 4.000 € eta aholkularitza profesionala

LANAK AURKEZTEKO EPEA: ABUZTUAK 28

- ▶ Gasteizko Udaleko Erregistro nagusian
- ▶ Gizarte etxeetan

Deialdiaren oinarriak & info

- ▶ www.vg.eus/gaztesortzaileak



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA

Gazte sortzaileen beka deialdirako oinarriak: Gazte Sortzaileak 2020

1.— Gasteizko Udaleko Euskara eta Gazteria zerbitzuek, Arabako Foru Aldundiaren Euskararen Foru Zerbitzuaren laguntzarekin –administrazio biek partekatzen duten helburua baita– eta Oihaneder Euskararen Etxearen lankidetzarekin, Gazte Sortzaileak beka deialdia sortu du, euskarazko kulturagintza bultzatzeko asmoz. Beka horren helburuak dira:

a) Gazteen artean euskarazko sorkuntza bultzatzea.

b) Gasteizko euskarazko kultura programazioan, besteak beste, eragitea, gazteek gazteentzat sortutako jardueren bidez.

c) Gazteek beren sormena garatzeko aukera-guneak izatea.

2.— Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek Vitoria-Gasteizen edo Arabako lurralde historikoan errolaturik egon behar dute eta 16 eta 35 urte bitartekoak izan.

Bi kategoria daude:

1. kategoria: 16-24 urte bitartekoak

2. kategoria: 25-35 urte bitartekoak

Bakarka zein taldeka aurkezteko aukera dago.

Taldeka aurkeztuz gero, taldekide guztiek adinaren baldintza bete behar dute; era berean, eta adinari dagokionez, bi kategorietakoak badira, adierazi beharko dute zein kategoriatan aurkeztu nahi duten lana. Bestalde, eroldari dagokionez, taldekide gehienek errolatuta egon behar dute Gasteizen edo Arabako Lurralde Historikoaren hiri edo herri batean.

Pertsona edo talde bakoitzak proiektu bakarra aurkez dezake.

Gehienez ere, beka bi aldiz jaso ahal izango da bi deialdi desberdinetan.

Pertsona fisikoak izan behar dira proiektua aurkezten dutenak, eta elkarte edo entitate batean izenean egiten badute hala adierazi beharko dute eskaeran bertan.

18 urtetik beherakoek gurasoen edo tutore legalaren baimena beharko dute, eskabide orri orokorraren “Ordezkaria” izeneko atala betez.

3.— Proiektuen eta ekitaldien ezaugarriak:

Euskaraz (sormen prozesutik hasita exekuzioraino euskaraz izango delako konpromisoa).

Ahozkotasanari estu-estu loturik: antzerkia, bakarriketa, poesia-emanaldia, musika, bertsolaritza, ikus-entzunezkoa, baita diziplinen arteko hibridazioa ere.

Formatu txikiko jarduerak hobetsiko dira.

Lanak jatorrizkoak izan daitezke eta euskaraz sortuak, edo euskarazko lan baten egokitzapena, baldin eta jatorrizko lanaren kalitateak edo interesak hori justifikatzen badute.

Ez dira onartuko itzulpen lan hutsetan oinarritutako proiektuak.

Inoiz taularatu edo jendaurrean aurkeztu gabeak.

Era berean, deialdia abian jartzen denerako proiektua hasita badago, adierazi beharko da zein fasetan dagoen, bestelako laguntzarik jaso den proiektuari hasiera emateko eta zein den deialdi honetan aurkeztuko den berrikuntza. Halako kasuetan bereziki aztertuko du epaimahaia

proiektuaren egokitasuna eta, behar izanez gero, xehetasun gehiago eskatuko ditu proiektuaren gainean.

4.— Parte-hartzaile bakoitzak ondorengoak aurkeztu behar ditu:

A) Eskabide orri orokorra eta II. eranskina (Gazte Sortzaile bekaren berariazko deialdikoa), eskuragarri Vitoria-Gasteizko Udalaren web orrian (www.vitoria-gasteiz.org/euskara) edo Euskara Zerbitzuaren bulegoan (Frai Zacarias Martinez, 2 — 01001— Vitoria Gasteiz).

A.1.) Eskabide orri orokorrari dagokionez, eskatzen diren datu pertsonalak eta norberak adierazi nahi dituzenez gain, honakoak zehaztu beharko dira “Azaltzen dut” atalean:

- Proiektuaren izenburua.
- Taldekako proiektua izanez gero, taldekideen izen-abizenak, adina eta adieraztea Arabako Lurrade Historikoan erroldaturik daudela.

A.2.) II. eranskina (Gazte Sortzaile bekaren berariazko deialdikoa).

- Ezin da adierazi proiektua eskatzailearekin edo taldeko kideekin identifika dezakeen datu pertsonalik.
- Eskabide orri orokorrean adierazitako proiektuaren izenburu berbera argi eta garbi.

B) Aurreko dokumentuez gain, proiektu bat aurkeztu beharko da:

- Lanaren azalpen zehatza euskaraz:
- Luzera: 2-4 orrialde
- Jardueraren ezaugarriak, gutxienez honakoak: argumentua, egitura, formatua, landu edo lortu nahi den helburua, kronograma...
- Aurrekusten diren behar teknikoak proiektua aurrera eramateko.

C) Proiektuaren aurrekontua.

D) Egoki ikusiz gero, proiektuaren lagina edo erakusgarria, edozein formatutan.

A.2.), B), C) eta D) ataletan ez da ageri behar egileak nor diren, ezta hori jakiteko biderik emango duten daturik ere.

5.— Epaimahaia. Berariazko epaimahaia sortuko da deialdi honetara aurkezten diren lanak balioesteko. Epaimahaia zazpi pertsonak osatuko dute:

a) Arabako Foru Aldundiaren Euskararen Foru Zerbitzuak eta Kultur Ekintzen Zerbitzuak izendatutako bi pertsona.

(b) Gasteizko Udalaren Euskara eta Gazteria zerbitzuek izendatutako beste bi.

c) Oihaneder Euskararen Etxea kudeatzen duen taldeko pertsona bat.

d) Kultur arloan ari diren talde edo elkarten izenean bi gazte (35 urtetik beherakoak), Udalak eta Foru Aldundiak adostutakoak.

e) Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuko pertsona batek idazkari lana egingo du.

6.— Elkarren arteko lehia baliatuko da bekak emateko. Proiektuak honako irizpide hauen arabera puntuatuko dira:

a) Egitasmoaren definizio-maila eta proiektua garatzeko sorkuntza-prozesuari buruzko xehetasunak: eman beharreko urratsak, kronograma... Gehienez ere 30 puntu.

b) Proiektuaren kalitatea eta interesa, kulturaren eta euskararen ikuspegitik. Gehienez ere 40 puntu. Honako hauek balioetsiko dira: proiektuaren izaera eta bertan ahozotasunak duen pisua, proiektuaren onuraduna nor izango den (pertsona kopurua eta talde zehatza); beste talde batzuek proiektuaren kudeaketan esku hartzen duten eta proiektuaren.

c) Proiektuaren originaltasuna eta ezaugarri berritzaileak. Gehienez ere 10 puntu. Honako hauek balioetsiko dira: berritasuna, originaltasuna eta antzekorik ez izatea.

d) Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa. Gehienez ere 10 puntu. Kultur proiektua abian jartzeko benetako aukera dagoen balioetsiko da, bai alderdi teknikoari dagokionez, bai alderdi ekonomikoari dagokionez. Horretarako, proiektuaren aurrekontuan taularatzeari lotutako gastu guztiak jaso behar dira, publizitatea eta behar teknikoak barne.

e) Genero berdintasuna sustatzen duen proiektua izatea. Gehienez ere 5 puntu.

f) Tolerantzia eta kultur aniztasunaren ezagutza sustatzen duen proiektuak izatea. Gehienez ere 5 puntu.

Orotara 100 puntu banatuko dira. Beka jaso ahal izateko proiektuek gutxienez 50 puntu jaso beharko dute.

7.— Deialdiak 18.000 euroko diru-zuzkidura du: 15.000 euro euskara zerbitzuaren 2020/0171.3351.22780 partidatik, eta 3.000 euro Gazteria Zerbitzuaren 2020/ 01 16 2371 22734 partidatik. Proiektu bakoitzari ezin izango zaio 4.000 euro baino gehiago eman. Diru-kopuru horietan zergak barne daude, eta —hala badagokio— PFEZaren atxikipena egingo da.

8.— Hiru kategoria direnez, proiektuak puntuazioaren arabera ordenatuko dira kategorია bakoitzean eta bekak horrela esleituko dira, txandaka, 16-24 kategoriatik hasita, diru-kopuru osoa banatu arte: lehenik lehen kategorian puntu gehien jaso duen proiektuari, bigarrenik 25-35 urte bitarteko gazteen kategorian puntu gehien jaso duenari, lehen kategoriaren bigarren proiektuari... eta horrela partidari dagokion diru-kopurua agortu arte.

9.— Ordainketak honela egingo dira:

- % 90 ebazpena jakinarazi ondoren, konturako aurrerakin gisa, faktura bidez.
- % 10 proiektua burututakoan, faktura aurkeztu ondoren.

Onuradunak proiektua gauzatu ez balu, aurrerakin gisa jasotako diru-kopurua itzuli beharko dio Gasteizko Udalari, horretarako araudiak ezartzen dituen baldintzen arabera.

Onuradunak Udalarekiko zerga-betebeharrak beteta izan behar ditu; hori dela eta, ofizioz eskatuko du ziurtagiri hori, eta zerga-betebeharrak bete ez baditu, onuradunari jakinarazi zaio, eta ez da fakturarik ordainduko, egoera hori konpondu arte.

10.— Betebeharrak eta eskubideak

(a) Sarituak esleipena onartzen duela adierazi behar du gehienez 10 eguneko epean. Hala berretsi ondoren, Euskara Zerbitzua eta Gazteria harremanetan jarriko dira hautatuetako bakoitzarekin, lana gauzatzeko berariazko klausulak finkatze aldera.

(b) Sarituek 6 hilabeteko epea izango dute proiektua gauzatzeko, esleipena onartzen duenetik. Epe horren amaieran, memoria bat aurkeztu beharko dute, eta bertan prozesu horren emaitza azaldu. Jarraian proiektua taularatzeko egutegia adostuko da. Memoria zehatza 2 hilabeteko epean aurkeztuko dute, proiektua amaitzen dutenetik. Era berean, derrigorrezkoa da antolatzen diren proiektuen koordinazio-bileretara etortzea.

(c) Gasteizko Udalaren Euskara Zerbitzuak eta Gazteria Zerbitzuak proiektuaren estreinaldia antolatu ahal izango dute Gasteizen, eta lurralde historikoan zehar ere taularatu daiteke. Beka honen baitan sortzen diren lanak zabaltzeko orduan berariaz aipatuko da Gasteizko Udalak eta

Arabako Foru Aldundiak sustatzen duten Gazte Sortzaileak deialdiaren baitan sortutako lanak direla. Onuradunek estreinaldia beren kabuz egiteko eskubidea dute, Gasteizko Udalak edota Arabako Foru Aldundiak 8 hilabetean horretarako pausurik ematen ez badu, edota alde biek horrela adosten badute.

(d) Sormena sustatzeko eta laguntzeko asmoz antolatu den deialdia izanik, sariaz gain, irabazleek tutoretza profesional bat izan ahal izango dute sormen lana prestatzeko. Hala izatekotan, Arabako Foru Aldundia edota Gazteria Zerbitzua arduratuko da horretaz; baita lan sarituen promozioa egiten laguntzeaz ere.

Onuradunak, eskabidea egiteko orduan, zein izango duen tutore erabakita badu, II. eranskinean adieraziko du; eta oraindik erabaki gabe badauka, adierazi ahalko du 2020ko urriaren 30era arte, honako helbide elektroniko honetara mezu bat bidaliz: euskaraba@araba.eus. Data horretatik aurrera ez da onartuko tutore eskaerarik.

11.— Koordinazioa eta jarraipena

Jarraipen batzorde bat eratuko da, proiektua behar bezala garatzen dela ebaluatzeko eta bermatzeko. Proiektuetan egokitzapenik edo aldaketarik proposatuko balitz, batzorde horri dagokio proposamenak baimentzea.

12.— Proiektuak aurkezteko azken eguna 2020ko abuztuaren 28a izango da, eta 13:00ak baino lehen aurkeztu behar dira.

Lanak Udalaren Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira —Teodoro Dublang margolaria 25— edo gizarte etxeetako Herritarrak Laguntzeko Bulegoetan. Horrez gain, 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitakoa aintzat hartuko da.

Proiektuak aurkezteko orduan zalantzarik izanez gero, interesdunek helbide elektroniko honetan argibideak eska ditzakete: gazteria@vitoria-gasteiz.org.

Interesdunek eskabidea aurkezten dutelarik, oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

13.— Akatsak zuzentzea.

Proiektuek ez badituzte oinarri hauetan xedatutako baldintzak betetzen, edo bertan galdatutako agiriak ez baldin bazaizkie gehitzen, 39/2015 Legearen 68 artikulua ildotik, eskatzaileei 10 eguneko epea emango zaie akats eta okerrak konpondu edo falta diren beharrezko agiriak aurkez ditzaten. Halaber ohartaraziko zaie hala egin ezean eskaera bertan behera utzitakotzat joko dela eta besterik gabe artxibatu egingo dela, eta lege beraren 21 artikulua aurreikusitako ondorioak izango dituela horrek.

14.— Lege oharra.

Aurkeztutako proiektuaren jabego intelektualari buruzko erreklamaziorik egongo balitz, proiektua aurkeztu duten pertsonak izango dira horren erantzule.